# 2022-2025 PLAN ESTRATEGIKOA
# PLAN ESTRATÉGICO 2022-2025

axular lizeoa

**Pertsona Eredua**
Modelo de Persona

**Proposamen pedagogiko eguneratu eta eraldatzailea**
Propuesta pedagógica actualizada y transformadora

**Kudeaketa aurreratua eta eraginkorra**
Gestión eficaz y avanzada

# Heziketa Modeloa

# Modelo Educativo

**axular lizeoa**

**HUMAN SCHOOL**

## Xedea - Misión

Euskal Kulturaren barnean, guraso eta irakasleen arteko lankidetza estua bultzatuz, haurraren eta nerabearen giza garapen integrala lortzea dugu helburu.

Fomentando la relación entre las familias y el profesorado, buscamos el desarrollo integral de nuestros alumnos, entorno a la cultura vasca.

## Baloreak - Valores

Mundura irekiak, euskaldunak, konpetenteak, kooperatiboak, ekintzaileak eta giza baloreetan aberatsak diren pertsonak hezi nahi ditugu.

Queremos educar personas ricas en valores, euskaldunes, competentes, cooperativas, emprendedoras y abiertas al mundo.

## Egitasmo Pedagogikoa - Opción Pedagógica

Beraien beharretara egokitzen diren metodologia ezberdinak baliatuz, gure ikasleen hezikketa prozesuan bidelagun gara.

Haciendo uso de metodologías que se adapten a sus necesidades, acompañamos a nuestros alumnos en su itinerario educativo.

## Aukera Antolatzailea Opción Organizativa

Familia kooperatibaren jabe izanda, zuzendaritza taldeak du kudeaketaren ardura, beti ere, artezkaritza kontseiluaren oniritziarekin.

Siendo una cooperativa de familias, la responsabilidad en la gestión corresponde a la dirección de la misma, bajo la supervisión del consejo rector.

## Ikasleen eta profesionalen Prof la Perf l del alumnado y del profesional

Pertsona, Euskalduna, Konpetentea, Kooperatiboa, Ekintzailea eta Berritzailea izan dadila.

Que sean Personas, Competentes, Cooperativas, Emprendedoras e Innovadoras.

## Ikusmira - Visión

Giza baloretan oinarritutako hezkuntza Kooperatiba euskalduna, berritzailea eta eleanitza gara.

Somos una cooperativa educativa sustentada en valores humanos, innovadora y plurilingüe.

**Hezkuntza Esperientzia Aurreratua**

**P.E. Berria 2022.2025**

**Kudeaketa aurreraturako kanpo Ebaluazioa**

**H.H. solairuko eraldaketa arkitektonikoa**

## ESTRATEGIA

- Hezkuntza lege berria aztertzea eta erakundearen beharretara egokitzea.
- Curriculum berriaren inguruko hausnarketa sakona eta hedapena.
- Lege berriak aztertzea eta eguneratzea.

## ESTRATEGIA

- Análisis de la nueva ley de educación y su adaptación a las necesidades de la organización.
- Reflexión profunda y despliegue del nuevo currículo.
- Análisis y actualización de nuevas leyes.

## PANDEMIAREN ONDOREN

- Ikastolako harreman eta Elkar-bizitzarako espazio eta momentuak berreskuratzea (ikastola eguna - eskola-orduz kanpoko harremana ikastolan - zuzendaritzarekin gosariak - danborrada - familien parte hartzea jarduera presentzialetan - Axularkide ekimena).
- Hizkuntza eta kultur trukaketak berreskuratzea DBHko maila bakoitzarentzat bat eskaintzeko.
- FIE - Ingeles murgiltze proiektua berreskuratzea.

## TRAS LA PANDEMIA

- Relaciones en la Ikastola y recuperación de espacios y momentos de convivencia (Día de la ikastola – Convivencia familias en la ikastola - Desayunos con la dirección - Tamborrada - Participación de las familias en actividades presenciales - Iniciativa Axularkide).
- Recuperar los intercambios lingüísticos y culturales con el fin de ofrecer uno en cada curso de la ESO.
- FIE - Recuperar el proyecto de inmersión inglesa.

## #GEROA2030 HAUR HEZKUNTZAN

- HHko Marko Pedagogiko berria inplementatzen jarraitzea.
- HHko marko pedagogikoari erantzunez, espazio horien eraldaketa arkitektoniko integralari aurre egitea.
- HHko marko pedagogikoa eta elkar-bizitza ahalbideratuko duten kanpo espazioetan hainbat esku-hartze eta proposamenekin jarraitzea.

## #GEROA2030 Educación Infantil

- Seguir implementando el nuevo marco pedagógico en E.I.
- Respondiendo al marco pedagógico de E.I. afrontar la transformación arquitectónica integral de dichos espacios.
- Continuar con diferentes intervenciones y propuestas en espacios exteriores que posibiliten el marco pedagógico y la convivencia en E.I.

## #GEROA2030 LEHEN HEZKUNTZAN

- LHko Marko Pedagogiko berria inplementatzen jarraitzea.
- LH ikaslearen dimentsio ezberdinak kontuan hartuta, planak eguneratzea:
  - Gaitasun anitzetako ikasleentzako plana.
  - Gatazka egoeretatik datozen ikasleentzako (Ukrania-bestelakoak) harrera plana.
- Etapen arteko trantsizioen koordinazioa eta jarraipena.

## #GEROA2030 Educación Primaria

- Seguir implementando el nuevo marco pedagógico en E.P.
- Actualizar los planes teniendo en cuenta las diferentes dimensiones del alumno de E.P:
  - Plan para el alumnado con diversas capacidades.
  - Plan de acogida para el alumnado procedente de situaciones de conflicto (Ucrania-otros).
- Coordinación y seguimiento de las transiciones entre etapas.

## #GEROA2030 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

- DBH osoan #GEROA2030 markoa inplementatzen jarraitzea.
- DBH 2. zikloaren antolaketa berria doitzen eta hobetzen jarraitzea:
  - Ko-tutoretza.
  - Ikas-geletako zuzeneko behaketa metodologikoa.
- DBHn pandemia aurretik genituen zerbitzuak eta proposamenak berreskuratzea:
  - Eguerditako liburutegi zerbitzua.
  - #Ikaskoop bolondres proiektua.
  - #Orientaxular-en presentzialtasuna guztiz berreskuratzea.

## #GEROA2030 en la Educación Secundaria Obligatoria

- Seguir implementando el nuevo marco pedagógico en la E.S.O.
- Continuar con los ajustes y mejoras respecto a la nueva organización del 2º ciclo de la ESO:
  - Cotutoría.
  - Observación metodológica en las aulas.
- Recuperar servicios y propuestas que teníamos antes de la pandemia en la ESO:
  - Servicio de biblioteca los mediodías.
  - Proyecto de voluntariado #Ikaskoop.
  - Recuperar la total presencialidad en #Orientaxular.

## #GEROA2030 BATXILERGOAN

- BATXI osoan #GEROA2030 markoa garatzeko lehen fasea abian jartzea.
- BATXIrako Hezkuntza Sailetik datorren diseinu eta ebaluazio proposamena ikastolako beharretara doitzea.
- USE kanpo ebaluazio probaren berrikuntzak aztertzea gure ikasleen emaitza akademikoei begira behar diren barne egokitzapenak egiten joateko.

## *#GEROA2030 en Bachillerato*

- Puesta en marcha de la primera fase de desarrollo del marco #GEROA2030 en todo el Bachi.
- Ajustar la propuesta de diseño y evaluación del Departamento de Educación para BACHI. a las necesidades de la ikastola.
- Analizar las novedades de la prueba de evaluación externa EVAU para realizar las adaptaciones internas necesarias orientadas a los resultados académicos de nuestro alumnado.

## AXULARREKO KUDEAKETA AURRERATUA SISTEMA

- AKAS barne-kudeaketarako tresnaren prototipoa kontrastatu, 1.0 bertsioa garatzea eta lehen inplementazio-fasea abian jartzea.
- AKAS ebaluatzea, Euskalitek bideratutako kanpo-ebaluzioa jasotzea eta erakundea urrezko "A" sarira aurkeztea.
- 5Setarako prozesu analogiko-digitalak protokolizatzea.

## SISTEMA DE GESTIÓN AVANZADO EN AXULAR

- Testear el prototipo de la herramienta de gestión interna AKAS, desarrollar la versión 1.0 y poner en marcha la primera fase de implementación.
- Evaluar AKAS, recibir la evaluación externa de Euskalit y presentar la organización al reconocimiento de la "A" de oro.
- Protocolizar los procesos analógicos-digitales para las 5S.

## BERRIKUNTZA

- Garai berri hauetan, Axular Lizeoak "Berrikuntza" nola definitu eta ulertuko duen eguneratzea.
- Berrikuntza-plana eguneratzea
- Ikasleen eta irakasleen garapenerako tresna berria ezartzea (Inika Jarraipenerako Portfolio Pertsonala).

## INNOVACIÓN

- Actualización de cómo Axular Lizeoa entenderá y definirá el concepto "Innovación" en estos nuevos tiempos.
- Actualización del plan de innovación.
- Implementación de la nueva herramienta para el desarrollo del alumnado y el profesorado (Portfolio Personal de Seguimiento en Inika).

## KOMUNIKAZIOA

- #Geroa2030 eraldaketa-prozesurako barne eta kanpo komunikazio eraginkorra bermatzea.
- Webguneak eta beste komunikazio-kanal batzuk berrikusi eta eguneratzea.
- Mintegien eta etapen arteko lankidetza eta komunikazioa era horizontal-bertikalean bermatzea.

## COMUNICACIÓN

- Garantizar una comunicación interna y externa eficaz para el proceso de transformación #GEROA2030.
- Revisión y actualización de sitios web y otros canales de comunicación.
- Garantizar la colaboración y comunicación horizontal-vertical entre seminarios y etapas.

## PERTSONA

- Gure pertsona-eredua kontuan hartuta, kanpoko sare bat garatzen jarraitzea ikasleen eta profesionalen garapen integrala elikatzen jarraitzeko (22/25 Formakuntza Plana).
- Profesional berrien harrera-prozesua berriz diseinatzea eta eguneratzea.
- Profesional berriak ahalduntzea, ikastolako bizimodu eta kulturara orientatuz eta hurbilduz.

## PERSONA

- Teniendo en cuenta nuestro modelo de persona, seguir desarrollando una red externa para seguir alimentando el desarrollo integral de alumnos/as y profesionales (Plan de Formación 22/25).
- Rediseñar y actualizar el proceso de acogida del nuevo/a profesional.
- Empoderamiento de los nuevos profesionales orientando y acercándolos/as a la vida y cultura de la ikastola.

## FAMILIA

- Familientzako banakako bileren diseinu eta proposamen berria garatzea.
- Guraso Eskolarako 2022-2025 online eta offline proposamenak diseinatzea eta garatzea.
- Barruko ate irekien kontzeptua abian jartzea.

## FAMILIA

- Desarrollar un nuevo diseño y propuesta de reuniones individuales para las familias.
- Diseño y desarrollo de propuestas online y offline para la Escuela de familias 2022-2025.
- Poner en marcha el concepto de puertas abiertas internas.

## EUSKARA

- Euskara batzordearen bitartez euskararen kalitate, erabilera eta hedapenerako estrategia berriak garatzea.
- "Familiarekin-Euskaraz" proposamena abian jarri eta bultzatzea:
  - Asteburuetan euskara erabiltzen lagunduko duten jarduera parte-hartzaileak ahalbideratzea.
- Hurbileko gizartean euskararen inguruan egiten diren ekintzak sustatzea eta gure hezkuntza komunitatera hurbiltzea.

## EUSKARA

- Desarrollar a través de la comisión nuevas estrategias de calidad, uso y difusión del euskera.
- Poner en marcha e impulsar la propuesta "Familiarekin-Euskaraz":
  - Posibilitar actividades participativas que contribuyan al uso del euskera los fines de semana.
- Promover acciones en torno al euskera que se lleven a cabo en la sociedad más cercana y acercarlas a nuestra comunidad educativa.